



**ENPRESA ETA NEGOZIO-
EREDUEN DISEINUA**

**EMPRESA Y DISEÑO DE
MODELOS DE NEGOCIO**

AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

Lau galderari erantzun behar diezu:

- 1. GALDERA,**
- 2. GALDERA (2A GALDERA edo 2B GALDERA),**
- 3. GALDERA (3A GALDERA edo 3B GALDERA) eta**
- 4. GALDERA (4A GALDERA edo 4B GALDERA).**

Aukerak dituzten galderetan (A edo B), horietako bati bakarrik erantzun behar diozu. Bi aukerei erantzuten badiezu, lehenengoa bakarrik zuzenduko da.

Gehieneko puntuazioa lortzeko, gai guztiek behar bezala arrazoituta eta garatuta egon behar dute, eta bereziki zaindu behar dira aurkezpena, ekonomia-hiztegiaren erabileraren egokitasuna eta gramatika-zuzentasuna.

Ez ahaztu azterketa-orri guztietan kodea jartzea

1. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 3 puntu

EHUNTZE SA altzariak ekoizten dituen enpresa bat da. Abenduaren 31n dituen ondare-elementuak hauek dira:

- Egurra leuntzeko makinak: 660.000 €
- Eskudirua kutxan: 2.600 €
- Hartzekodun batzuekin onartuak dituen ordaintzeko letrak: 11.000 €
- Biltegian dagoen egurra: 16.000 €
- Lantegia 347.300 €-an baloratua dago, horietatik 50.000 € lurraren balioari dagokio
- Gizarte Segurantzari zor diona: 2.000 €
- Zenbait banketxetako kontu korranteetan daukan saldoa: 23.400 €
- Lan egiteko erabiltzen den kamioia: 84.000 €
- Banku batek emandako mailegua, 6 hilabete barru itzultzekoa: 6.000 €
- Altzari batzuk egiteagatik kobratzeko dituen fakturak: 3.120 €
- Bulegoan dituen ordenagailuak: 2.700 €
- Banku batek emandako mailegua, 3 urtera itzultzekoa: 84.000 €
- Ogasunari zor diona BEZaren likidazioagatik: 70.000 €
- Lege-erreserbak: 230.000 €
- Egur-hornitzaileei zor dizkien fakturak: 74.000 €



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZOHIOA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

ENPRESA ETA NEGOTZIO- EREDUEN DISEINUA

EMPRESA Y DISEÑO DE MODELOS DE NEGOCIO

- Bezeroei kobratu gabeko lettrak 22.880 €
- Bulegoan dituzten altzariak: 6.000 €
- Ibilgetu materialaren amortizazio metatua: 291.400 €
- Bazkideek egindako ekarpenak ????

Datu horiek kontuan izanik:

- a) Osatu enpresaren egoera-balantzea, ondare-masatan sailkaturik. (1,5 puntu)
- b) Azter ezazu enpresaren finantza-egoera ratio hauek erabiliz: (1,5 puntu)
 - Diruzaintza edo altxortegia
 - Likidezia
 - Bermea
 - Zorpetze osoa
 - Ibilgetua

2. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu

2A galderari edo 2B galderari erantzun behar zaio.

2A GALDERA

AMETS S.M. pastelgintzako lantegiak Eroski banaketarako kooperatibarentzat gabonetako erroskak egiten ditu urtero. Aurtengo gabonetarako 54.500 erroska saldu ditu. Haiek ekoizteko, 245.250 €-ko kostu aldakorak izan ditu; gainera, 58.014 €-ko kostu finkoak ere izan ditu. Unitateko salmenta-prezioa 7,8 € da.

Aurrekoa kontuan hartuta, kalkulatu:

- a) Puntu hila edo produktuaren errentagarritasun-ataria, azaldu haren esanahia eta egin dagokion grafikoa. (1 puntu)
- b) Aurtengo emaitza ekonomikoa. (0,5 puntu)
- c) Enpresaren ekoizpen-ahalmen maximoa 14.000 unitatekoa izango balitz, zer salmenta-prezio jarri beharko luke galerarik ez izateko? (0,5 puntu)

2B GALDERA

Enpresa batek, iaz, bere produktua egiteko, 20.000 € balio zuten lehengaiak erosi eta kontsumitu zituen, eta, batez beste, biltegian 1.800 €-ko izakinak eduki zituen (biak erorsketa-prezioen arabera balioetsita).

Salmenta-bolumena, produktuen salmenta-prezioaren arabera balioetsirik, 75.000 €-koa izan zen, eta, batez beste, bezeroek enpresarekin 1.500 €-ko zorra izan zuten. Enpresa honi dagozkion beste zenbait datu, guztiak ere kostuaren arabera balioetsirik, hauek dira:

Urteko ekoizpenaren balioa: 40.000 €

Fabrikazio bidean dauden produktuen batez besteko balioa: 4.000 €



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZOHIOA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

ENPRESA ETA NEGOZIO- EREDUEN DISEINUA

EMPRESA Y DISEÑO DE MODELOS DE NEGOCIO

Urteko salmentak: 45.000 €

Produktu amaituen batez besteko izakinak biltegian: 3.750 €.
(urtea=365 egun).

Kalkula ezazu:

- a) Batez besteko heltze-aro ekonomikoa. Azaldu emaitza. (1,5 puntu)
- b) Batez besteko heltze-aro finantzarioa, kontuan harturik hornitzaileen batez besteko saldoa 2.500 €-koa dela. Azaldu ezazu emaitza. (0,5 puntu)

3. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu

3A galderari edo 3B galderari erantzun behar zaio.

3A GALDERA

Enpresa batek ilea mozteko makinak saltzen ditu, eta mugimendu hauek erregistratu ditu maiatzean biltegian:

01/05 Hasierako izakinak 500 unitate 12 €/u.

05/05 Erosketak A hornitzaileari 350 unitate 11,5 €/u.

07/05 Salmentak B bezeroari 400 unitate 25 €/u.

13/05 Erosketak A hornitzaileari 600 unitate 10,25 €/u.

17/05 Salmentak B bezeroari 500 unitate 24,5 €/u.

24/05 Erosketak D hornitzaileari 600 unitate 13 €/u.

28/05 Salmentak B bezeroari 400 unitate 25 €/u.

- a) Aurreko datuak aintzat harturik, bete ezazu maiatzeko biltegi-fitxa FIFO balorazio-metodoa erabiliz, eta kalkula itzazu bukaerako izakinak eta izakin horien balioa (lortutako balioak bi hamartarrekin biribildu). (1 puntu)
- b) Aurreko datuak aintzat harturik, bete ezazu maiatzeko biltegi-fitxa batez besteko prezio haztatuaren (BPH) balorazio-metodoa erabiliz, eta kalkula itzazu bukaerako izakinak eta izakin horien balioa (lortutako balioak bi hamartarrekin biribildu). (1 puntu)

3B GALDERA

Erantzun galdera hauei:

- a) Zer da enpresa multinazional bat? (0,5 puntu)
- b) Zer da ETE bat? (0,5 puntu)
- c) Adierazi enpresa multinazionalen abantaila eta desabantaila batzuk. (0,5

**ENPRESA ETA NEGOZIO-
EREDUEN DISEINUA**

**EMPRESA Y DISEÑO DE
MODELOS DE NEGOCIO**

puntu)

d) Adierazi ETEen abantaila eta desabantaila batzuk. (0,5 puntu)

4.GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 3 puntu

4A galderari edo 4B galderari erantzun behar zaio.

4A GALDERA

LEA enpresak 300 unitate kontsumitzen ditu hilero (egunero kopuru berdina) eta 100 unitateko segurtasun-stocka du. Hornikuntza-epea 10 egunekoa da, eta eskaera-bolumena 2 hilean kontsumitzen diren unitate kopurua da (hil bat = 30 egun).

Kalkula itzazu hauek:

- a) Eskaera-puntua. (0,5 puntu)
- b) Batez besteko stocka. (0,5 puntu)
- c) Errotazio-indizea. (0,5 puntu)
- d) Egin ezazu adierazpen grafikoa. (0,5 puntu)
- e) Garraio-greba batengatik, 2. eskaera 3 egun beranduago iritsi da. Zer egoeratan dago enpresa? Bezzeroak hornitzeko gai izango da? (0,5 puntu)
- f) Eta eskaera 10 egun beranduago iristen bada? Enpresarentzat nolako ondorioak izango ditu? Adieraz ezazu hori aurreko grafikoan. (0,5 puntu)

4B GALDERA

50 urte eta kilometro asko gurpiletan

Echemar familia-proiektu txiki baten historia da, eta salgaiak errepidez garraiatzeko enpresa erreferente bihurtu da nazioartean.

Echemar Euskadiko garraio-enpresa handienetako bat dela pentsa daiteke bere 50. urteurrenaren ospakizunean. Eta hori bermatzen dute zifrek: 300 kamioi eta 400 atoiko flota aurreratua, 350 langileko plantilla eta 40 milioi euroko urteko fakturazioa.

Baina hara iristeko bidea luzea izan da. Echemar 1974an sortu zen, Irungo mugaz gaindiko hiria bezalako kokapen estrategikoan oinarrituta. Pixkanakako hazkundearen ondoren, 90eko hamarkadan, garraiolarien sektorea kolokan jarri zuen aduana-krisia iritsi zen. Echemarrek nazioarteko abenturari ekiteko ekimena izan zuen.

XXI. mendera sartzearekin batera, Echemarrek garai berri bati ekin zion, instalazioak Lezora aldatuta, kokapen estrategikoa baitzen, mugatik gertu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko EZOHIOA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2025

ENPRESA ETA NEGOTIO- EREDUEN DISEINUA

EMPRESA Y DISEÑO DE MODELOS DE NEGOCIO

egoteaz gain Pasaiaiko portutik gertu zegoelako. Horrela, aurrerabide-aro berri bat hasi zen, automobilgintzaren sektorean bezero mailan garrantzia irabaztera eramanez **negozio-ereduaren aldaketa** bati esker, Michelin, Mercedes-Benz eta abarren mailako kolaboratzaileekin.

"Echemar ereduak" familia izango zen plantilla bat sortzearen aldeko apustua egin zuen, soldatapeko langileekin eta autonomoak ez direnekin, sektoreko lan-prekarietatearen aurka borrokatzeko; era berean, jasangarritasunari begiratuko zion flota baten alde egin zuen, bere flota eraginkortasun energetikorantz eraldatuz, eta digitalizazioari arreta jarriko zion kudeaketa baten alde.

Estrategia onuragarria, ez enpresa mailan bakarrik, baita ingurunearentzat ere. Izan ere, lurraldean oso errotuta egonik, Echemarrek gizarte-konpromiso aldaezina du, eta horrek irismen handiagoko proiektu bihurtzen du, garraio-zerbitzuen enpresa izatetik harago.

(a) Deskribatu zertan datzan testuan aipatzen den negozio-ereduaren aldaketa. (1,5 puntu)

(b) Azaldu zein den testuan azpimarratutako hiru adierazpenen esanahia. (1,5 puntu)